

## HEOko azterketa eredu – Euskara B2– Entzunaren Ulermena

### 1. ARIKETA

Xabi Alonso futbol jokalaria sorterrira itzuli da atzerrian urte asko eman eta gero. Hari eginiko elkarrizketa bat entzungo duzu bi aldiz 7 entzungai laburretan. (A-I) esaldiak dituzu alde batetik eta entzungo duzun informazioa bestetik. Zuk parekatu egin behar dituzu X adibidean bezala. Bi esaldi sobran daude.

*Euskadi Irratia, Faktoria saioa (moldatua)*

- X. *Xabi Alonso futbolari ohia Antiguu auzoan bizi da orain.*
- A. Aita eta bera futbolariak izan dira, baina ez dute batere elkarren antzik.
  - B. Alferrik saiatu da bere izena ongi ahoska dezaten.
  - C. Futbolak ez ezik, futbolaren bidez ezagutu duen jendeak ere asko eman dio.
  - D. Futbolearen norbanakoak beti taldearen mesederako lan egin behar du.
  - E. Gurasoak urrun sentitu ditu atzerrian ibili den denboran.
  - F. Kirol alorrean nahiz eguneroko bizitzan nabaria da aitaren itzala.
  - G. Oreka emozionalari eusteko amaren aholkuak garrantzitsuak izan dira.
  - H. Seme-alaben euskara hobetu nahia ere izan da itzuleraren zergatia.
  - I. Urteen joana nabaria bada ere, gauza batzuek berdina segitzen dute sorterrian.

Informazioak	0	1	2	3	4	5	6	7
Esaldiak	X							

## 2. ARIKETA

Ariketa honetan Iraitz Lazkano Elgetako alkateari Zaldibarko zabortegiaren hondamendiaren ondorioez egindako elkarrizketa entzungo duzu bi aldiz. Aukeratu erantzun egokia (a, b, c), adibidean (0 zenbakia) bezala.

*Euskadi Irratia, Amarauna saioa (moldatua)*

### 0. Non dago alkatea kazetariak deitzen dionean?

- a) etxean, egun latza pasatuta.
- b) udaletxean bilduta.
- c) zabortegiaren ondoan.

### 8. Larrialdi-mahaian parte hartzeko eskaera egin dute udaletik,...

- a) baina ezezko biribila jaso dute.
- b) eta ez diete erantzun.
- c) nahiz oso beharrezkoa ez duten ikusten.

### 9. Elgeta eta zabortegia.

- a) Herriko auzo batzuk gertu egotea da kezkarri.
- b) Kezka sortu da Elgeta zabortegiaren ondo-ondoan dagoelako.
- c) Nahiz herria urrun egon, euriak tarteka kutsadura ekartzen du.

### 10. Airearen kalitatea neurtzen dute Elgetan?

- a) enpresa batek hartu du egiteko hori bere gain.
- b) istripua gertatuz geroztik udalak egiten du aldi oro.
- c) Jaurlaritzak hartu du horren ardura, nahiz ez zuten espero.

### 11. Airearen kalitatearen neurketen emaitzak...

- a) haizea dabilenean emaitzak dezente hobeak dira.
- b) hasieratik jakinarazi diete oso-oso txarrak zirela.
- c) kezkarriak dira, nahiz hasieran onak zirela esan zieten.

### 12. Baratzetan analisisirik egin dute?

- a) alkateak ez daki horrelakorik egin ote duten.
- b) bai, eta udalari erakutsi dizkiete analisi horien emaitzak.
- c) fruitu arboletan bai, baina barazkietan ez.

### 13. Alkatearen iritziz, gertaera honek...

- a) gure gizarte ereduaren bi akats larri begi aurrean jarri dizkigu.
- b) hondakinen kudeaketa sistema goitik behera aldarazi du.
- c) lan-baldintza hobeak ekarri dizkie zabortegietako langileei.

Informazioak	0	8	9	10	11	12	13
Erantzunak	a						

### 3. ARIKETA

Ariketa honetan Isabel Elizalde eta Jakoba Errekondok izan duten solasaldiaren zati bat entzungo duzu bi aldiz. Solasaldiaren gaia da mendialdeko herrien biziraupena XXI. mendean. Aukeratu erantzun egokia (a, b, c), adibidean (0 zenbakia) bezala.

*Eusko Ikaskuntza. Solasaldiak (moldatua)*

**0. Askoren iritziz, mendialdeko herrietan biztanle galera eteteko...**

- a) kultur-azpiegiturak sustatzea nahikoa da.
- b) soilik enplegua behar da.
- c) *zerbitzuak behar dira.*

**14. Zangozan azpiegiturak eta zerbitzuak badaude,...**

- a) baina ez nahikoak. Gehiago behar dira.
- b) hala ere, bertako batzuek segitzen dute Iruñara bizitzera joaten.
- c) horregatik ez dira gutxi Iruñea utzi eta hara doazenak bizitzera.

**15. Mendialdeko jendea herrian gera dadin zera behar da:**

- a) eguneroko zereginetan eroso sentitzea.
- b) herriari eta bertan dagoen guztiari estimua izatea.
- c) hirian edukiko lukeena herrian eskura izatea.

**16. Mendialdeko gazte jendeak jaso ohi duen aholkua...**

- a) herria betiko uztea da, hirian aukera gehiago daude-eta.
- b) herritik ez irteteko da, hirian dena zailagoa baita.
- c) kanpoan ikasi eta gero herrira itzultzeko da.

**17. Norberaren herria ondo ezagutu behar da...**

- a) bertan lanpostua errazago bilatzeko.
- b) haren gabezia guztiez jabetzeko.
- c) hura maitatzera iristeko.

**18. Mendialdean herri bakoitza unibertso bat da,**

- a) baina zenbaitetan eskualdea da aztergune, ez herria.
- b) horregatik ezinezkoa da haren ezagutza sakona.
- c) unibertsoa dena bailara da, ez herria.

**19. Mendialdeko herriek gaur egun badute zer eskaini...**

- a) bertakoen heziketa eta izaera benetan estimatzen direlako.
- b) egungo gizarteak eskatzen duena bertan dagoelako.
- c) etorkizunean industria-guneak bertan kokatuko direlako.

<b>Galderak</b>	<b>0</b>	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>19</b>
<b>Erantzunak</b>	<b>c</b>						

#### 4. ARIKETA

Ariketa honetan Begoña Muruagarena kazetariak Gasteizko Auditorioaren inguruko gorabeherak kontatuko dizkigu. Aukeratu erantzun egokia (a, b, c), adibidean (0 zenbakia ) bezala

**0. Gasteizen polemika handia dago...**

- a) Auditorio berria dela-eta.
- b) Auditorio zaharra bota behar dutelako.
- c) Auditorioa tokiz aldatu dutelako.

**20. Noiz onartu zen auditorio berriaren proiektua?**

- a) Alfonso Alonso alkate zenenan.
- b) Navarro Baldeweg alkate zenean.
- c) Orain dela 50 urte inguru.

**21. Auditorio berriaren lehenengo proiektua(k)**

- a) bazterrean utzi zuten, dirua alferrik gastatuta.
- b) diru apur batengatik ez zen gauzatu.
- c) diru-faltagatik ez zuen aurrera egin.

**22. Hurrengo alkate Patxi Lazkozek zera proposatu zuen:**

- a) proiektua aurreko arkitekto berberak egitea.
- b) proiektua beste toki batean egitea.
- c) Toyota enpresak proiektua diruz laguntzea.

**23. Javier Maroto hurrengo alkateak**

- a) bertan behera utzi zuen proiektua, egoerak behartuta.
- b) proiektua aurrekontu berrietara egokitu zuen.
- c) zortzi milioi euroko proiektu bat abian jarri zuen.

**24. Gorka Urtaran oraingo alkateak...**

- a) argi du auditorio berria non jarri.
- b) auditorio berria hogeitun urtean egin nahi du.
- c) lehenengo proiektuari helduko dio, kokapena aldatuta.

**25. Auditorio berriaren proiektua dela eta...**

- a) askotariko iritziak daude, politikoen zein hiritarren artean.
- b) hiritarrek baiezko iritzia dute, salbuespenak salbuespen.
- c) politikoak bai iritsi direla kontsensu batera.

**26. Kazetariaren iritziz, auditorio berria egin edo ez...**

- a) aurrekontuaren arabera erabakia izango da beti.
- b) hiritarrei galdetu beharko zaie, ez beste inori.
- c) Udaleko zinegotziek erabakiko dute bozketa bidez.

Galderak	0	20	21	22	23	24	25	26
Erantzunak	a							